

DONOSTIAKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRARI:

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak bere egiteko eta helburuen barne hartzen du Donostiako gizarte arlo guztietan euskararen erabilera normalizatzeko tresna izatea. Hori dela eta, helburu estrategikoetako bat da euskararen erabilera areagotzea arlo sozioekonomikoan, zehazki merkataritza eta ostalaritza esparruan.

Euskara Zerbitzuak urteetan eskaini ditu dirulaguntzak establezimenduetako kanpo errotulazioa euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz jartzeko, hiriko merkataritza, ostalaritza eta bestelako zerbitzu-jardueren sektorean euskararen erabilera indartzeko helburuz. Era berean, ildo horri jarraituz, eta hizkuntza paisaia euskalduntzeko nahian, establezimenduen barruko hizkuntza paisaia aldatzeko dirulaguntzak ere eskainiko dira, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz jartzeagatik. Hala, lehentasunezkoztat jotzen du egitasmo honekin jarraitzea establezimenduei errotuluak euskaraz edo ele bitan jartzeagatik dirulaguntza emanez, besteak beste, kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.

Horiek horrela, Kulturako, Euskarako eta Turismoko zinegotzi-ordezkariek Donostiako Gobernu Batzarrari proposatzen dio honako erabaki hauek onar ditzala:

ERABAKIAK

1. Hiriko establezimenduetako kanpo errotuluak zein barruko errotuluak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz jartzeagatik dirulaguntzak emateko oinarriak onestea.
2. Dirulaguntza hauetarako 10.000 € bideratzea, eta gastua Euskara Zerbitzuko 2024ko aurrekontuaren 471.01 kontu sailari egozte.
3. Kulturako, Euskarako eta Turismoko zinegotzi-ordezkariek eskuordetzea jasotzen diren eskubideen dirulaguntza emakida ebatzeko eta, hala dagokionean, itzultze prozesua ebatzeko.
4. Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko onespena ematea.

Donostian, sinaduraren egunean

KULTURAKO, EUSKARAKO ETA TURISMOKO ZINEGOTZI-ORDEZKARIA

EUSKARA ZERBITZUAREN BURUA

HIZKUNTZA NORMALKUNTZARAKO TEKNIKARIA